



metro bilbao

Dokumentuaren laburpena:

Zirkulazioaren Segurtasunean esku hartzen duten enpresa hornitzaileetako Langileak Gaitzea

16-SE-DC-005

Bertsioa: 0
2016/01/27



Bertsioa	Data	Zergatia
0	2016 urtarrila	Hasierako bertsioa

1. Gaitasun Psikofisikoaren Ziurtagiria Ateratzeko prozesua

1.1. Osasun-azterketak eta azterketa psikologikoak

Enpresa kontratistek eta azpikontratistek trenbide-zirkulazioarekin loturik aritzen diren langileen gaitasun psikofisikoa egiaztatuko dute, baldintza psikofisikoa balioesteko, garatzen duten lanaren arabera.

Prozedura honen ondoretarako, zirkulazioaren segurtasunarekin loturiko lanak garatzen dituzten edo garatuko dituzten langileentzat jarduera-multzoko hauek bereizten dira:

- Azpiegitura-langileak (Lan-treneren makinistak, segurtasun-pilotuak eta segurtasun-arduradunak) HEC3, HEI gaitzeari dagozkio.
- Tren-operazioetako langileak (zirkulazio-lanak egiten dituzten materialen garbitzaileak, eta materialak gidatzen dituzten langileak) HEC2, HER3 gaitzeari dagozkio.

Lanpostu horietan nahitaezkoa da horietan jarduteko gaitasun psikofisikoaren egiaztatzea.

Gaitasun psikofisikoaren baldintzak jarduera-multzokak:

- Azpiegitura-langileak (2-eranskina), HEC3, HEI
- Tren-operazioko langileak (3-eranskina) HEC2, HER3

1.2. Egiaztatzeak

1.2.1. Gaitasun psikikoa

Segurtasunaren ardura duen sailari aurkeztea bakoitzari dagokion Osasun-azterketaren ziurtagiria, non garatuko den lanposturako eskatutako baldintzak espresuki aipatuko diren

Osasun-azterketa hori dagokion Lan-ezbeharren Mutuak egin ahal izango du.



Edonola ere, mediku batek sinatuko du.

1.2.2. Gaitasun psikologikoa

Gaitasun psikologikoa segurtasunaren ardura duen sailari langileak hautatzeko enpresek, kabinete psikoteknikoek luzatutako eta psikologo batek sinatutako egiaztagiria aurkeztuz erakutsiko da, non jakinaraziko den pertsona hori erabat egokitzen zaiola bete behar den lanposturako ezarritako gaitasunen profila.

Ebaluazio psikologikoaren edukia zehaztean, azterketan egiaztatu behar da langileak ez duela gabezia psikologikorik, bereziki operazio-gaitasunetan zein lana seguru burutzea eragotz lezakeen nortasunaren bestelako faktoreren batean.

1.2.3. Egiaztagirien indarraldia

Gaitasun psikofisikoaren eta psikologikoaren egiaztagiriak Gaitze Teknikoaren ikastaroa egin baino lehen atera behar dira, urte berean.

Gaitasun Fisikoaren eta Psikologikoaren ziurtagirien iraupena langileen adinaren arabera aldatuko da:

- 60 urte edo gehiago dituzten langileen egiaztagirik gaitze-datatik 12 hilabete iraungo dute eta, ondorioz, iraungi baino lehen berriztatu beharko dira.
- 60 urtetik beherako langileen kasuan, gaitzeak beste iraungo dute beste gaitasun-agirik ere.

Lehen esandako adinak kontuan hartuko dira dagokion ebaluazioa egiten denean.

Metro Bilbaok edozein unetan egiaztatu ahal izango du, egoki deritzen bideetatik, aurkeztu zaizkion ziurtagiriak.



2. 2 eranskina - HEC3, HEI

Gaitasun psikofisikoaren baldintzak azpiegitura-langileen egokitasuna balioesteko egiaztagirirako

Eskakizun orokorrak

Ez du gaixorik egon behar, ez eta ondore hauek izan litzaketen botikarik, drogarik edo substantziarik hartu behar:

- Bat-bateko konorte-galera
- Arreta edo kontzentrazioa jaistea
- Bat-bateko ezintasuna
- Oreka edo koordinazioa galtzea
- Mugikortasuna nabarmen mugatzea

Lanez arduratzen den pertsonaren eta zirkulazioaren segurtasunaren pilotu ari den pertsonaren kasuetarako:

1. Ikusmena:

- a) Urruneko ikusmena, zuzenduta zein zuzendu gabe: 0,8 bi begiekin begiratzean, gutxienez 0,3 gutxien ikusten duen begirako
- b) Eskatzen den ikusmen horretara heltzeko gailu zuzentzailerik behar badu, ordezeko bat ere eroan beharko du aldean.
- c) Gehienez onartzen den zuzenketa: Hipermetropia + 5 dioptria; miopia - 8 dioptria
- d) Onartzen da ukipen-lenteak erabiltzea, lentilla koloreztatuak edo fotokromatikoak izan ezik. Iragazki ultramorea duten lentillak onartzen dira.
- e) Gertuko edo tarteko ikusmena; nahikoa, zuzenketarekin zein gabe.
- f) Ikusmen kromatiko normala, Ishihara testarekin, beste proba batekin osatua, behar izanez gero.
- g) Itsualdi normal baten erantzun-denbora
- h) Argi-ikusmen normala
- i) Ikusmen estereoskopiko normala
- j) Ikusmen-eremu osoa
- k) Begiak eta albokoak osorik
- l) Fusioa orain
- m) Ez izatea ikusmen-organoen gaixotasun progresiborik.
- n) Inplanterik edota kirurgia errefraktiborik izanez gero, sei hilabete igaroko dira berriz balioetsi arte; nolnahi ere, aldeko txosten oftalmologikoa aurkeztu behar da.

2. Entzumena:

- a) Entzumen nahikoa, protesiekin edo protesirik gabe, audiograma batek baietsia, hau da, telefonoz hitz egiteko eta
- b) Hasierako tonu-audiometria:
 - ✓ 1.- Batez besteko galera 500, 1000 eta 2000 frekuentzietako galeren batezbesteko aritmetikoarekin kalkulaturik, baldintza hauek betetzen dituztenak: ez gainditzea 40dB belarri



batean ere. Gutxien entzuten duen belarrian soilik onartuko dira 45 dB, beste belarrian 30 dB gainditzen ez direnean.

- ✓ 2.- 4000 Hz galerak ez du 60dB gaindituko belarri batean ere. Sólo se permitirá alcanzar los 70 dB. en el oído con peor audición, cuando en el otro oído no se superen los 50 dB.

c) Beste baldintza otorrinolaringologiko batzuk:

- ✓ Ez izatea mintzamenaren nahasmen kronikorik, ahozko komunikazio sendo eta argia oztopatzen duenik.
- ✓ Ez izatea inolako anormaltasun edo gaixotasunik sistema bestibularrean.

3. Gaitasun psikologikoa:

Lanak segurtasun-irizpidez betetzeko gaitasun psikologikoa gaitasun hauen ebaluazioaren arabera zehaztuko da:

- a. Ezagutza (arreta, kontzentrazioa, oroimena, arrazoitzea, pertzepzioa, komunikazioa)
- b. Psikomotorra (erantzun-abiada, koordinazio psikomotorra)
- c. Jokabidea-nortasuna (autokontrol emozionala, jokabide-fidagarritasuna, arduraren, psikopatologia, autonomia)

Gaitasun psikologikoaren balioeste-testak erabiliko dira (psikoteknikoak)

Azpiegitura-makinen operatzailearen kasurako:

4. Ikusmena:

- a. Urrutiko ikusmena, zuzenketarekin edo zuzenketarik gabe: 0,8 bi begiekin, ikusmen binokularrean; gutxienez 0,5 begi gutxien dituen begiarentzat.
- b. Eskatzen den ikusmen horretara heltzeko gailu zuzentzailearik behar badu, ordezeko bat ere eroan beharko du aldean.
- c. Gehienez onartzen den zuzenketa: Hipermetropia + 5 dioptria; miopia - 8 dioptria
- d. Onartzen da ukipen-lenteak erabiltzea, lentilla koloreztatuak edo fotokromatikoak izan ezik. Iragazki ultramorea duten lentillak onartzen dira.
- e. Gertuko edo tarteko ikusmena; nahikoa, zuzenketarekin zein gabe.
- f. Ikusmen kromatiko normala, Ishihara testarekin, beste proba batekin osatua, behar izanez gero.
- g. Itsualdi normal baten erantzun-denbora
- h. Argi-bereizmen normala
- i. Ikusmen estereoskopiko normala
- j. Ikusmen-eremu osoa
- k. Begiak eta albokoak osorik
- l. Fusioa orain
- m. Ez izatea ikusmen-organoen gaixotasun progresiborik.
- n. Inplanterik edota kirurgia errefraktiborik izanez gero, sei hilabete igaroko dira berriz balioetsi arte; nolana ere, aldeko txosten oftalmologikoa aurkeztu behar da.



5. Entzumena

- a. Entzumen nahikoa, audiogramak baietsia, hau da, telefonoz hitz egiteko nahikoa eta alertak eta irrati-mezuen tonuak entzuteko gai izatea.
- b. Hasierako tonu-audiometria:
 - ✓ 1.- Batez besteko galera 500, 1000 eta 2000 frekuentzietako galeren batezbesteko aritmetikoarekin kalkulatuta, baldintza hauek betetzen dituztenak: ez gainditzea 40dB belarri batean ere. Gutxien entzuten duen belarrian soilik onartuko dira 45 dB, beste belarrian 30 dB gainditzeko ez direnean.
 - ✓ 2.- 4000 Hz galerak ez du 60dB gaindituko belarri batean ere. Gutxien entzuten duen belarrian soilik onartuko dira 70 dB, beste belarrian 50 dB gainditzeko ez direnean.
- c. Beste baldintza otorrinolaringologiko batzuk:
 - ✓ Ez izatea mintzamenaren nahasmen kronikorik, ahozko komunikazio sendo eta argia oztopatzen duenik.
 - ✓ Ez izatea inolako anormaltasun edo gaixotasunik sistema bestibularrean.
 - ✓ Kasu berezietan, onartzen da entzumen-protesiak erabiltzea.

6. Gaitasun psikologikoa:

Lanak segurtasun-irizpidez betetzeko gaitasun psikologikoa gaitasun hauen ebaluazioaren arabera zehaztuko da:

- a) Ezagutza (arreta, kontzentrazioa, oroimena, arrazoitzea, pertzepzioa, komunikazioa)
- b) Psikomotorra (erantzun-abiada, koordinazio psikomotorra)
- c) Jokabidea-nortasuna (autokontrol emozionala, jokabide-fidagarritasuna, arduraren, psikopatologia, autonomia)

Gaitasun psikologikoaren balioeste-testak erabiliko dira (psikoteknikoak)